

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: TXISTUA 2019ko OTSAILAren 25a

2019ko OTSAILAren 25ean Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **txistu** espezialitatean. Bertan Aitor Amilibia Alarcia irakasleak eta Musikeneko txistu ikasleek parte hartuko dute.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten txistu ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten txistu ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Jarduanaldiaren helburua

- Goi Mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei eta bertan egongo diren irakasleei sarrera probei buruzko informazioa ematea, bertan eskatuko den maila eta gomendatzen den erreperitorioa barne.
- Musikenen bertako ikasleekin egiten den lana erakustea.
- Ikaslearen mailaren balorazioa egitea proposatutako erreperitorioa entzunez, sarrera probak gainditzeko helburuz.
- Proba gaindituz gero izango lukeen ikasketa planari buruzko informazioa.

Lan-egitasmoa

15.30: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Txistu espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben azalpena. Eraikinari bisita gidatua.

16.15: Musikeneko ikasleei eskola irekiak.

17.15: Instrumentu talde eskola irekia Musikeneko ikasleei.

18.30: Entzunaldia eta ikasle aktiboei eskola.

19.30: Musikeneko txistu ikasleen eskutik emanaldi laburra.

Non egingo den

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Haize eta Perkusio instrumentuen Departamentu buroarekin: Rodolfo Epelde repelde@musikene.eus